EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# Onarpen-eskabidea On-line: Haur Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

## Laguntzeko dokumentua

**2026eko urtarrila**

# AURKIBIDEA

1 Sarrera....2
2 Prozeduraren faseak....2
2.1 Erregistro-fasea. ....2
2.1.1 Posta elektronikoaren kontua erregistratzea/pasahitza....2
2.1.2 Pasahitza gogorarazi....6
2.2 Sarbide-eskaeraren bilketa: ....6
2.2.1 Erabiltzailearen konexioa....6
2.2.2 Eskaeraren datuak betetzea....8
2.2.3 Eskaera gordetzea / Ikastetxera bidaltzea / Eskaera berreskuratzea....28
2.2.4 Aurkeztutako dokumentuak zuzentzea....28
2.2.5 Zirriborroa/Eskaeraren ziurtagiria inprimatzea....29
2.2.6 Eskaeraren egoera kontsultatzea....29
2.3 Eskabidea ezabatzea / Prozesuan atzera egitea....31
3 Esker onak....31

Aurkibidea

# 1 Sarrera

Agiri honek Haur Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Onarpen-eskaera egiteko jarraitu beharreko prozedura erakusten du, eskaintza osoaren modalitatean, Interneten bidez, Hezkuntza Sailak horretarako prestatutako toki batean.

**https://ikasgunea.euskadi.eus**

**OHARRA:**

**Mozilla Firefox eta Google Chrome *nabigatzaileak erabiltzea gomendatzen da.***

Eskabidea egiteko laguntza behar baduzu, jo ezazu ikasgunea@hezkuntza.net helbidera.

# 2 Prozeduraren faseak.

Prozedurak 2 fase ditu:

1. ***Erregistroa:***

   Hezkuntza Sailean posta elektroniko kontu bat erregistratzeko aukera ematen die herritarrei (sartzeko identifikatzaile gisa) internet bidezko onarpen-eskaera egiteko.

2. ***Eskaeraren bilketa:***

   Ikasle bakoitzak onarpen-eskaera bat egin dezake, eta, halaber, sortutako eskaerak kontsultatu, aldatu edo/eta ezabatzeko aukera izango dute.

   Era berean, eskaeran sartutako datuak eta/edo erantsitako agiriak aldatzeko aukera ematen du.

   Eskaerak edozein momentutan kontsultatu daitezke.

## 2.1 Erregistro-fasea.

Erregistro-faseak posta elektroniko kontu bat adierazteko aukera ematen die herritarrei, ondoren, onarpen-eskaeren bilketa-prozesu osoan (berria) eta mantentze-prozesuan (kontsulta, aldaketa eta ezabaketa) zehar erabiltzeko.

Atariak emandako zerbitzuen zati bat pribatua da, beraz, ataria nabigatzen duen pertsona erregistratuta eta identifikatuta egon behar da.

Pertsona batek datu pribatuak kontsultatu nahi dituenean, behin bakarrik erregistratu behar da. Erregistro honekin erabiltzaile-kontua lortzen da Ikasgunean beti sartzeko.

Posta elektroniko kontu bat erregistratzeko prozedurak ondorengo urratsak ditu:

### 2.1.1 Posta elektronikoaren kontua erregistratzea/pasahitza

"Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Onarpena eta matrikulazioa" egiteko orrian, "*Eskarak*" atalean, eskaerak elektronikoki izapidetzeko aukera ematen duen atarian sar zaitezke, *ikasgunea"*.

Atariko identifikatzeko eta erregistratzeko orrialdetatik Izen ematea estekan klik eginez erregistratzeko prozesuan sartzen da.




- ***Aita/Ama/Legezko tutorea:*** Izena eman dezakete matrikulan ikasle baten tutore legala bezala baldin badago.

- ***Ikasleak:*** 14 urte baino gehiagoko ikasleak eta ikastetxe batean matrikulatuta daudenak.

Bestalde, edonor erregistra daiteke norberaren ziurtagiri akademikoak kontsulta egiteko.




- Identifikazio dokumentuaren mota. NAN/AIZ, egoitza baimena edo HNA erabili daitezke.
  - **NAN/NIE edo egoitza baimena ez baldin badute, erabiltzailea ikastetxera joan behar dute HNA eskatzera** (Hezkuntza Nortasun Agiria).
  - NAN dokumentuaren iraungitze data eta jaiotze data jarri behar dira.
  - Egoitza baimena edo HNA aukeratzen denean izena emateko, ez du iraungitze data
    edo
    - Adindunak bere legezko tutoreari bere informazioa ilusteko baimena eman die.
- Egiaztapenaren testua irakurezina denean, "refresh captcha" botoia sakatuz ( ) irudi berria sortuko da.
- Emandako datuak errealak direla eta ez dagoela beste pertsona baten lekua hartzen baieztatu behar da.

**"Jarraitu"** eman eta gero egoera hauek eman daitezke:

- Pertsona ondo identifikatu da eta datuak hurrengo pantailan agertzen dira.
  edo
- Erregistroak errorea ematen du eta Atariak honen inguruan informazioa erakusten du

- Sartutako datuak ez dira zuzenak. Berrikusi dokumentuaren zenbakia zuzena dela, baita jaiotze-data eta iraungitze-data ere.
    - Ikaslea adinduna da eta ez dauka bere datuak ikusteko baimenik.
    - Bere datuak ez datoz bat ikasle baten tutore bezala.
    - Bere datuak ez datos bat ikasle bezala.
    - Ez dago sistema akademikoan erresgistratuta.
- Errorea orokorragoa bada sistemak hurrengo mesua erakusteko du:
    - Sisteman akats bat gertatu da. Saiatu geroago.

Behin datuak balioztatuta daudenean, hurrengo pantaila agertuko da pertsonaren datuekin. Erabiltzaileak ezin ditu aldatu grisez agertzen diren datuak




Pantaila honetan:

- Adierazitako ataletan telefono zenbakiak sartu behar dira eta hizkuntz bat aukeratu behar da.
- Datu akademikoak: Hortik ikasturte honetan matrikulatuta gauden ala ez aipatu dezakegu. EAEko ikastetxe batean matrikulatutako ikasle baten tutorea garen ala ez ere adierazi ahal izango dugu.
- **“Helbide elektroniko”** hutsunea daukagun baliozko helbide elektronikoarekin bete behar dugu, ala ere **“pasahitza”** eta **“pasahitza berretsi”** aukeretan. “Mezu elektroniko hau bera erabili nahi duzu sailarekin harremanetan jartzeko mezu elektroniko gisa?” aukeran, posta bera erabil dezakezu atarirako eta sailarekin harremanetan jartzeko, edo, bestela, bi posta desberdin izan ditzakegu. “Ez” aukera hautatuz gero, beste posta bat izango dugu Hezkuntza Sailean. “Bai” hautatuz gero, atarian sartzeko erabiltzen den posta eguneratuko da.

**“Amaitu”** botoia sakatuz gero leiho bat irekiko da, eta adierazitako telefono mugikorrean jasotako sei digituko zenbakia han sartu behar izango da, hutsunean, erregistroa amaitu ahal izateko.



Prozesua bukatzean erabiltzailea ikasgunea atarian erregistratuta geratuko da eta hasi ahal izango du saioa identifikazio pantailatik.

### 2.1.2 Pasahitza gogorarazi

Pasahitza berreskuratu ahal izango dugu **“Pasahitza ahaztu duzu”** aukera hautatuz gero.




**Nabarmentzen dugu**

Aukera hori hautatzean agertuko dira eskuinan betetzeko bi atal. Lehenengoan sartu behar dugu korreo helbidea eta bestean eskatutako testu egiaztapena.




Gero agertuko da leiho bat non jarriko ahal izango dugu pasahitz berri bat.

## 2.2 Sarbide-eskaeraren bilketa:

Eskaerak bildu eta mantentzeko (kontsulta, aldaketa eta ezabaketa) prozedurak honako urratsak ditu:

### 2.2.1 Erabiltzailearen konexioa

Identifikazio eta erregistro orrialdetik erabiltzaileak, bere helbide elektronikoa eta pasahitza erabiliz Atariko datu pribatuen gunean sar daiteke.




Lehen sarreran aurrez sartutako telefono zenbakia baliozkotzeko eskatuko du. Ezin izango gara sartu telefonoa balioztatu arte.




Balioztatu botoia sakatu ondoren helduko zaigu sartutako zenbakira sei digituko zenbakia. Pantaila bat agertuko da eta han sartu behar izango dugu jasotako kodea.

Kodea sartu eta amaitu botoia sakatu ondoren sartu egingo gara.

Onarpen-eskaera baten alta emateko, sartu **Onarpen-eskaerak** atalera.




Haur edo Lehen Hezkuntzako edo DBHko onarpen-***eskaera baten alta emateko***, dagokion botoia sakatu beharko duzu.




Aldez aurretik eskaeraren bat egin baduzu, aipatutako loturen goiko aldean haien zerrenda agertuko zaizu. Eskaera bat kontsultatzeko edo aldatzeko, taulako bigarren zutabean agertzen den ikaslearen izena sakatu beharko duzu.




## 2.2.2 Eskaeraren datuak betetzea

Eskaera bakarra egin ahal izango da ikasle bakoitzeko. Dagokion hezkuntza-maila eta kurtsoa adierazi beharko da, eta eskaera horretan nahi dituen aukera guztiak egin ahal izango ditu, lehentasun-ordenaren arabera. Eskaera bakoitzean, nahi den ikastetxe eta hezkuntza-eredua (A, B edo D) adierazi beharko da.

***"Eskaintza Osoaren Eskaera Berria"*** sakatzean, honako pantaila hau erakusten da:




Hor, atarira konektatutako pertsonaren datuen zerrenda bat erakusten da, baita haren tutoretzapean daudenen datuak ere, Hezkuntza Sailak dituen datuen arabera.

EAEn matrikulatutako ikasle baten tutorea bazara eta ikasle hori ez bada zerrenda honetan agertzen, jar zaitez harremanetan gaur egun ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearekin, hark haren tutore gisa erregistra dezan.

Ik***aslea, zeinentzat eskaera egin nahi den,*** zerrendan badago, hautatu egin beharko da, NANa edo AIZa identifikazio-agiri gisa aurkeztuz gero, nortasun-datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuaren bidez haren datuak egiaztatzeko baimena ematen duela adierazi behar da eta ***"Eskaera hasi"*** sakatu. Ez badago zerrendan, ***"Aurreko pertsonak ez beste pertsona bat"*** aukera hautatu beharko da.

Zerrendako pertsona bat hautatzen bada, zuzenean joko da eskaerara, eta pertsona horren eta tutoreen datuak aldez aurretik kargatuak egongo dira. Pertsona hori ez badago zerrendan, beharrezkoa izango da **ikaslea identifikatzea.** Horretarako, pantaila hau agertuko da:




Hauek dira sartu beharreko datuak:

1. ***Dokumentu-mota eta –zenbakia:*** ondorengo aukeretako bat adierazi beharko da nahitaez:
   - NANa eta bere 8 zenbakiak eta jarraian kontrol-letra (hutsunerik bereizteko karaktererik gabe) sartu. Beharrezkoa izango da ikasleak 16 urte edo gehiago baditu.
   - AIZ eta bere zenbakia (letra, 7 zenbaki eta letra) hutsunerik edo bereizteko karaktererik gabe Beharrezkoa izango da ikasleak 16 urte edo gehiago baditu.
   - HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria ) eta bere zenbakia (N zenbakiak eta letra), hutsunerik edo bereizteko karaktererik gabe. Ez badaukazu dokumentu hau eta EAEn ikasten baduzu, matrikulatuta zauden ikastetxean eskatu beharko duzu. Ez baduzu EAEn ikasten, eskatu zure lehen aukera den ikastetxean. HNAren bidez sartzeko, "Dokumentu-mota" eremuan hautatu "*Ez dauka".*
   - Dokumentu-zenbakia adierazi gabe (Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko kurtsoetako eskatzaileentzat bakarrik):. sartzeko aukera ematen da, identifikazio-zenbakirik eduki gabe ere. Kasu honetan, hautatu "*Ez dauka"* "Dokumentu-mota" eremuan. Dokumentu mota gisa "Ez dauka" hautatzean, pantaila hau agertuko da:




2. ***Iraungitze-data:***

   Nahitaezkoa da datu hori ematea, dokumentu-mota gisa NANa hautatu baduzu.

3. ***Jaioteguna***

   Beharrezkoa da ikaslearen Jaioteguna sartzea.

Datu horiek sartu ondoren, "Jarraitu" sakatu beharko duzu.

Identifikazioa NAN edo AIZ bidez egin bada, “***Balioztatu”*** sakatzean egiaztatuko duzu ea dokumentu-zenbakia zuzena den, eta ea sartutako jaiotegunak DGPn (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia) erregistratutako bera den. Kasu batzuetan, identifikazioa AIZ baten bidez egin bada, posible da AIT sartzea eskatzea, informazio osagarri moduan.

Identifikazioa HNA bidez egin bada, sartutako datua zuzena dela egiaztatuko da, baita jaioteguna Hezkuntza Sailaren datu-basean erregistratutako bera dela.

Identifikazioa jaiotegunaren bidez egin bada eta hori Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteetako ikasgelei badagokie, pantaila honetara igaroko da:




Pantaila honetan:

- Ikaslea HNArekin identifikatu bada, sistemak adieraziko dizu badagoela datu horiek dituen pertsona bat Hezkuntza saileko datu-basean, eta zu ez zarela tutore gisa agertzen (horregatik ikaslea ez zegoen 2.2.2puntuan deskribatutako zerrendan), eta ezin izango duzula prozesuarekin jarraitu.

- Ikaslea NANarekin edo bizileku-baimenarekin identifikatu bada eta haren datuak ez badaude Hezkuntza saileko datu-basean, izena, 1. abizena, 2. abizena eta generoa aurrez kargatuta egongo dira, eta ezingo dira aldatu. Bestela, ezingo du prozesuarekin jarraitu.

- 2 edo 3 urteko ikaslea bada eta identifikazio-dokumenturik ez badu, beren izena, 1. abizena, 2. abizena eta generoa sartu beharko dituzu.

Halaber, honako datu hauek bete beharko dituzu:

- **Ikaslearen telefono mugikorra eta finkoa**, edo, bestela, ikaslearen ama, aita edo legezko tutorearena. Ikaslearekin komunikazioa errazteko, gutxienez, horietako bat eman beharko duzu.

- **Posta elektronikoa:** ikaslearen helbide elektroniko bat bete behar duzu nahitaez, edo, bestela, haren aitarena, amarena edo legezko tutorearena.

- **Nazionalitatea:** nahitaez bete beharrekoa.

- **Korrespondentzia-hizkuntza:** ikastetxeko komunikazioak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzun aukeratu behar duzu.

- **Ahaidetasuna:** zerrendatik ikaslearekin duzun ahaidetasun mota hautatu beharko duzu.

Ikasleak 4 urte edo gehiago baditu, adierazi beharko duzu ikaslea gaur egun EAEn matrikulatuta ote dagoen ala ez.

Ikaslea "EAEn matrikulatuta" dagoela erantzuten baduzu, sistemak ez dizu aurrera egiten utziko, zu ez baitzara agertzen ikaslearen tutore gisa. Berrikusi eskabide bat egin dezakezun pertsonen zerrenda (ikus eskuliburu honetako 2.2.2 puntua) edo jarri harremanetan ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearekin.




Behin informazioa sartuta, jarraitu ahal izateko nahitaezkoa izango da legezko informazioa irakurri eta onartu dela berrestea.

Jarraitu sakatzean, eskabidearen datuak sartzeko inprimakia agertuko da.

Eskaerak egitura hau du:

1. ***Datu orokorrak:*** Kurtsoa, maila, eskaeraren egoera eta ikaslearen izen-abizenak. Kurtsoaz gain, gainerako datuak ez dira ikusgarri izango eskaera grabatu arte.




2. ***Ikaslearen datuak:*** Eskaerara ikaslearen izena sistemak emandako zerrendan hautatuz sartu bazara, edo NAN/AIZ edo HNA bidez identifikatuz, Hezkuntza Sailean aldez aurretik erregistratutako datuak erakutsiko zaizkizu, Oinarrizko datuak, identifikazio-zenbaki mota eta zenbakia, izena eta jaioteguna eta halakoak, ezingo dira aldatu, aldez aurretik erregistratua badaude (eremuren bat hutsik badago, bete egin beharko da; adibidez, NAN zenbakia gehituz, ez badago). Ordea, gainerako datuak berrikusi eta eguneratu egin behar da. Sarbidea jaioteguna sartzearen bidez egin bada (2 eta 3 urteko ikasgelentzat bakarrik), eskuz sartu beharko dira datu guztiak.




Izartxoa daukaten eremuak beharrezkoak dira. Ez badituzu betetzen, ezingo duzu eskaera gorde.

1) ***Dokumentu-mota, dokumentu-zenbakia, AIT, jaioteguna eta Hezkuntza Nortasun Agiria:*** eskaerara sartzeko datuak dira, eta ezin dira aldatu aldez aurretik gordeta badaude.

   Identifikazio-agiriaren zenbakia adierazten bada (NAN edo AIZ), datuak zuzenak direla egiaztatuko da, nortasun-datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuaren bidez.

2) Ikaslearen ***izena, lehen eta bigarren abizenak eta sexua:*** ezingo dira aldatu aldez aurretik gordeta badaude.

***3)*** Ikaslearen ***telefono mugikorra eta finkoa,*** edo, bestela, gurasoena edo legezko tutorearena. Ikaslea aurkitzea errazteko, ***gutxienez haietako bat jarri beharko da.***

4) ***Helbide elektronikoa:*** nahitaez jarri beharko da ikaslearen helbide elektronikoa, edo, bestela, gurasoena edo legezko tutorearena.

5) ***Jaiotza-herrialdea, -probintzia eta -tokia:*** Nahitaez bete behar da ikaslearen jaiotza-herrialdea, -probintzia eta -udalerria.

6) ***Hizkuntza nagusia:*** adierazi zein den ikaslearen komunikazio-hizkuntza ohikoena.

7) ***HPE adierazlea:*** Eskatzaileak uste badu ikasleak hezkuntza-laguntza behar duela, aukera hau markatu beharko du, gero premia hori ikastetxeak eta Lurralde Ordezkaritzak baieztatu behar badu ere. Aukera hori hautatzen baduzu, eskubian agertzen den testua sakatu beharko duzu.




Hezkuntza-premia bereziak dituen eskatzaile bat dela adieraztean, ikaslea aurreko ikasturtean EAEan matrikulatuta egon ez bada, aukera ematen da adierazteko eskatzaile horrentzat aurretiazko diagnostikorik badagoen. Aldez aurretik diagnostikoren bat izanez gero, nahitaezkoa izango da zirkunstantzia egiaztatzen duen dokumentazioa eranstea

Egindako galderei erantzun ondoren "***Dokumentua sortu"*** beharko duzu, eta PDF bat deskargatu, ondoren "***Eskaeraren nahitaezko dokumentuak"*** atalean erantsi beharko duzuna.

**HPB inprimakia**

**Mugitzen, eskailerak igotzen/jaisteko laguntza behar du?**
¿Necesita ayuda para desplazarse, subir/bajar escaleras, etc.?

**Autonomiaren arloan (pixontzia, elikadura, janztea, higienea) zailtasunak ditu?**
¿Presenta dificultades de autonomía en el control de esfínteres, alimentación, vestido o higiene?

**Ikastetxeak eraikuntza egokitzapenak izatea beharrezkoa al da? Zergatik?**
¿Necesita que el centro tenga adaptaciones arquitectónicas? ¿Por qué?

**Ikusmen arazorik ba al du?**
¿Tiene algún problema de visión?

**Entzumen arazorik ba al du?**
¿Tiene algún problema de audición?

**Hizkuntza edo komunikazio arazoak al ditu?**
¿Tiene problemas de lenguaje o de comunicación?

**Diputazioaren Gizarte Ongizatearen zerbitzura edo antzeko zentroren batera joan behar izan al du? Zergatik?**
¿Ha necesitado acudir al Centro Base de la Diputación o a algún otro tipo de centro similar? ¿Por qué?

**Arreta goiztiarreko zentroren batera joan behar izan al du? Zergatik?**
¿Ha necesitado acudir a algún centro de atención temprana?

**Botikaren bat hartu behar izaten al du eskola-orduetan? Zergatik?**
¿Necesita tomar medicinas habitualmente en horario escolar? ¿Por qué?

**Ba al du elikagai-alergiarik? Adierazi zein.**
¿Tiene algún tipo de alergia alimentaria? Indique cuál o cuáles.

**Ba al du ezgaitasunik edo nahasmendurik? Ziurtagiria izanez gero, erantsi.**
¿Tiene alguna discapacidad o transtorno? En caso de disponer de certificación, adjúntela.

**Alderdi emozional edo portaeran zailtasun nabarmenak ditu (antsietatea, agresibitatea, bazterketa, etab.)?**
¿Presenta dificultades significativas en la gestión emocional o del comportamiento (ansiedad, retraimiento, agresividad, etc.)?

**Ikastetxearentzat interesgarri izan daitekeen informazioa gehitu dezakezu horrela nahi izanez gero:**
Añada a continuación cualquier dato que considere de interés para el Centro

Dokumentua sortu | Ezeztatu

3. ***Ikasleak egun egiten dituen ikasketak:*** bloke hori eskaera DBH egiteko bada bazik ez da azalduko. Ikasleak aldi berean ikasten badu DBH eta Musika edo Dantza ikasketa arautuak, edo errendimendu handiko kirol-programa bati jarraitzen badio, lehentasuna izango du Bigarren Hezkuntza ematen duten Hezkuntza Sailak zehaztutako ikastetxeetan onartua izateko; bertan onartzea ziurtatuko da, nahikoa toki badago.




4. ***Ikaslearen familiaren helbidea (ohikoa):*** beharrezkoa da ohiko helbidea jasotzea.




a) ***Herrialdea:*** hautatu zerrendan, nahitaez.

b) ***Probintzia eta udalerria:*** hautatu zerrendan, nahitaez, Espainiako Estaturako, edo sartu eskuz atzerriko helbideetarako (Frantzia).

c) ***Herria, kalea eta ataria:*** hautatu zerrendan Euskadiko helbideetarako, edo sartu eskuz Euskadiz kanpokoetarako.

d) ***Posta-kodea:*** automatikoki ikusaraziko da Euskadiko helbideetarako (aurreko datuetatik abiatuta); eskuz bete beharko dute Euskadiz kanpoko helbideetarako.

e) ***Eskailera, solairua, letra:*** hautazkoa, baina betetzea gomendatzen da, posta arruntaren bidezko etorkizuneko komunikazio-prozesuak errazteko.

5. ***Familiaren egoera:*** adierazi era bereizitako edo dibortziatutako familia bat den edota adingabeak tutore bakarra duen. Bereizitako edo dibortziatutako familia bat bada, honako hau erantsi beharko da: *"Familia bereizien protokoloa betetzen dena egiaztatzeko dokumentua".* Horretarako, Sailak jarraibide batzuk prestatu ditu.




6. ***Eskatzailearen datuak. Aita, ama edo legezko ordezkaria:*** atal honetan, onarpen-eskaera egiten duen legezko tutorearen datuak jasoko dira.

   Ahaidetasuna aukeratzean, pertsonaren identifikazio-blokea agertuko da:



1) ***Ahaidetasuna:*** zerrendan, ikaslearekin duen ahaidetasun-harremana aukeratu beharko du.

2) ***Tutorea:*** beti erantzun behar da **bai**; izan ere, beharrezkoa da tutorea izatea eskaera egiteko.

3) ***Guraso ahala, Legezko zaintza, eta Norekin bizi da:*** *Bereizitako edo dibortziatutako gurasoen kasuan, edo elkarbizitza bukatu duten izatezko bikote diren gurasoen kasuan,* adierazi beharko da identifikatu den pertsonak ikaslearen guraso ahala duen, haren legezko zaintza duen eta ikaslearekin bizi den. Erantzuna baiezkoa bada, dagozkion laukiak markatu beharko ditu.

4) ***Dokumentu mota, Dokumentuaren zenbakia, Hezkuntzaren Nortasun Agiria eta Jaioteguna:*** honako aukera hauetako bat hautatu beharko du, nahitaez:

- NANa eta zenbakia (8 zenbaki eta letra, zuriunerik edo bereizteko karaktererik gabe).

- AIZ eta zenbakia (7 zenbaki eta letra) zuriunerik edo bereizteko karaktererik gabe.

Identifikazio-agiriaren zenbakia adierazten bada (NAN edo AIZ), datuak zuzenak direla egiaztatuko da, nortasun-datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuaren bidez. Egiaztapen hori gainditzen bada, eskatzaileak ez du identifikazio-agiriaren fotokopia erantsi beharko dokumentazio-atalean.

- HNA eta zenbakia (N zenbaki eta letra) zuriunerik edo bereizteko karaktererik gabe). Pertsona bat HNA bidez bilatzeko, aukeratu "*Ez dauka*" "Dokumentu-mota" atalean.

Jaioteguna nahitaez adierazi behar da kasu guztietan.

Datu horiek idatzi ondoren, sakatu "***Egiaztatu***" botoia, eta adierazi behar diren gainerako datuak agertuko dira.




1) ***Izen-abizenak eta sexua:*** automatikoki jakinarazten dira egiaztatzean, eta ezin dira aldatu.

2) ***Nazionalitatea:*** nahitaez bete behar da.

3) ***Sakelako telefonoa eta finkoa:*** ezinbestekoa da gutxienez ***horietako bat adieraztea.***

4) ***Posta elektronikoa:*** nahitaez bete behar da.

8) ***Lehen hizkuntza:*** adierazi komunikatzeko gehien erabiltzen den hizkuntza.

7. ***Aita, ama edo lege-tutorearen lantegiko helbidea:*** aukerakoa da. Beharrezkoa da soilik gero, eskaeraren baremazio-prozesuan (puntuazioa), helbide hori kontuan hartzea nahi bada. Kasu

horretan, helbidearen datuak osatu behar dira, eta nahitaez aurkeztu beharko da dagokion ziurtagiria.




8. ***Bigarren gurasoaren edo lege-arduradunaren datuak:*** adingabeak bi tutore baditu, bigarren tutore horren datu guztiak adierazi beharko dira. Eskatutako datuak lehen tutoreari eskatutakoaren berdinak dira, eta horiek adierazteko metodoa ere bera da. Kasu horretan ere, aukerakoa da lantokiaren helbidea adieraztea (beharrezkoa da soilik baremazio-prozesuan kontuan hartzea nahi denean).
9. ***Eskatutako ikasketak:*** eskaera zein kurtso eta ikastetxetan egiten den adierazi beharko da (eskaeraren bigarren erlaitzean).




1) ***Kurtsoa:*** aukeratu zerrendan zein kurtsori dagokion eskaera. Kontuan hartu behar dago ikaslea dagoeneko eskolara doan ala ez. Eskatutako kurtsoa etorkizko ikastetxean adierazitako kurtsoa baino altuagoa izango da, ezinbestean. Adibidez, ikaslea egun Lehen Hezkuntzako 2. maila egiten ari bada, atal honetan Lehen Hezkuntzako 3. maila adierazi beharko da.
2) ***Goizegi jaiotzea:*** irailean, urrian, azaroan edo abenduan muturreko jaiotza goiztiarra duten haurrek, Haur Hezkuntzan lehen aldiz matrikulatu behar badute, dagokien adin ofiziala baino maila baxuagoan matrikulatu ahal izango dira. Horretarako aukera izan nahi baduzu, hasierako eskolatzea ohikoa baino maila txikiagoan justifikatzen duten muturreko goizegi jaiotzearen eta heldutasun-atzerapenaren egiaztagiria aurkeztu behar duzu. Maila-aldaketa hori behin betiko baimentzeko, Hezkuntzako ordezkariaren aldeko ebazpena beharko da .

Ondorioz, beheragoko maila batean matrikulatzeko aukera klik egiten badu:

- eskaera ez da osorik geratuko eskatutako txosten medikoa erantsi arte.
- hori aurkezten baduzu, eskaera osorik geratuko da adin ofizialari dagokion mailarako, harik eta Ordezkaritzak familiaren eskaera baimendu arte .
- Ordezkaritzak familiaren aukera positiboki ebazten badu, ofizioz zuzenduko da eskaeraren maila, eta esleipenak eskatutako egoera kontuan hartuko du.
- Ordezkaritzak eskabidearekin batera ebazpenaren txostena aurkeztuko du, familiak horren berri izan dezan.

3) ***Erlijioa:*** nahitaez bete behar da. Erlijioa ikasi nahi dela esaten bada, erlijioa aukeratzeko zerrenda bat agertuko da.

4) **Garraio- eta jangela-erabilera:** eskatutako ikastetxeak zerbitzu horiek baldin baditu, adierazi ea erabiliko dituzun.

5) ***Etorkizko ikastetxea:*** atal honetan adierazi behar da ikaslea kurtso honetan EAEko ikastetxe batera, EAEko ikastetxe batera edo atzerriko ikastetxe batera doan, edo eskolatu gabe dagoen. EAEtik kanpo edo atzerrian adierazten bada, beste esparru batzuk agertuko dira; bertan, ikaslea egun zein ikastetxetan dagoen adierazi beharko da. Etorkizko ikastetxeari buruzko informazio hori ez da eskatuko eskaera Haur Hezkuntzako 2 edo 3 urteko gelan hasteko denean.

6) ***Aukerak. Ikastetxeak eta ereduak, lehentasunaren arabera:*** aukeren taulan, eskatzen diren ikastetxeak eta ereduak adierazi behar dira, ematen zaien lehentasunaren arabera ordenatuta.



Ikaslearen Datuak | Eskatutako Ikasketak | Baremazioa / Dokumentazioa | Inkesta

Kurtsoa:
Haur Hezkuntza 3 urte

**Goiztiartasuna**
Muturreko goiztiartasun egoeragatik, Haur Hezkuntzako adin ofizialaren maila baino txikiago matrikulatzeko aukera hartu nahi al duzu?
Bai Ez
Egoera (Ordezkaritzak bete behar du):
Ebatzi gabe

**Erlijioa**
Erlijioa ikasi nahi duzu?:
Bai Ez

**Garraioaren eta jantokiaren erabilera**
Eskatutako ikastetxeek garraio zerbitzua badute, erabiltzeko asmoa al duzu? Bai Ez Erabaki gabe
Eskatutako ikastetxeek jantoki zerbitzua badute, erabiltzeko asmoa al duzu? Bai Ez Erabaki gabe

**Etorkizko ikastetxea**
EAEan EAEtik kanpo Atzerrian Eskolarizatu gabe

**Aukerak**

| | Lurraldea | Udalerria | Ikastetxea | Eraikina | Eredua | Atxikita | Egoera |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Bizkaia | Sestao | CEIP Albiz HLHI (Sestao) | | *B | | |
| 2 | Bizkaia | Sestao | CEIP Albiz HLHI (Sestao) | | D | | |
| 3 | Bizkaia | Sestao | CEIP Kueto HLHI (Sestao) | | D | | |
| 4 | Bizkaia | Sestao | CEIP Kueto HLHI (Sestao) | | *B | | |
| 5 | Bizkaia | Barakaldo | CEIP Arteagabeitia HLHI (Barakaldo) | | D | | |
| 6 | Gipuzkoa | Aretxabaleta | CEIP Kurtzebarri HLHI (Aretxabaleta) | | *B | | |
| 7 | Bizkaia | Barakaldo | CEIP Bagatza HLHI (Barakaldo) | | D | | |
| 8 | Bizkaia | Barakaldo | CEIP Juan Ramón Jiménez HLHI (Barakaldo) | | *B | | |
| 9 | Bizkaia | Barakaldo | CEIP Gurutzeta HLHI (Barakaldo) | | D | | |

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | Berria

(*) Eskaini gabeko ereduak

Eragin-eremuko ahalik eta ikastetxe gehien hautatzea gomendatzen da, batez ere etxetik gertuen daudenak, hautatu gabeko ikastetxe bati esleitzea saihesteko.

Eragin-eremuko ikastetxeak kontsultatu

Badakit Eragin-eremuko ikastetxe guztiak ez ditudala hautatu, eta horrek, aukeratutako ikastetxeetan lekurik ez badago, nire etxetik hurbilago dagoen lekuekin hautatu gabeko ikastetxean esleitzeko, aukerak areagotzen dituela.

Eragin-eremuko ahalik eta ikastetxe gehien hautatzea gomendatzen da, batez ere etxetik hurbilen daudenak, hautatu gabeko ikastetxe bati esleitzea saihesteko.

Eskatzailea bizi den eragin-eremuan 5 ikasteatxe baino gehiago badaude eta eskaeran gutxienez 5 zentro hautatu ez badira, eskaera gorde ahal izateko nahitaezkoa izango da honako hau markatzea: Badakit ez ditudala hautatu eragin-eremuko ikastetxe guztiak, eta horrek aukera gehiago ematen ditu, aukeratu ditudan ikastetxeeetan plazarik ez badago, nire bizilekutik hurbilen dagoen hautatu gabeko ikastetxeari esleitzeko eta plazak edukitzeko.




Eragin-eremuko ikastetxeak eta hurbileneko ikastetxeak kontsulta ditzakezu, honako esteka honen bidez: “eragin-eremuko ikastetxeak kontsultatu”.







Datuak sartzeko, beheko aldean ageri den “***Berria***” botoian klik egin behar da.

Eskatutako ikastetxea aukeratzeko, lurraldeko eta udalerriko menu zabalgarriak erabil daitezke edo, bestela, ikastetxearen izena zuzenean idatz daiteke 3. zutabean. Ikastetxearen izenari dagokion zutabea bakarrik osatzen da; hau da, nahikoa da ikastetxearen izenaren zati bat idaztea edo klik bikoitza egitea izen-, udalerri- eta lurralde-baldintzak betetzen dituzten aukerak agertzeko.




Aukeratutako ikastetxeak hainbat eraikin baditu, dagokion zutabean eskatu nahi den eraikina adierazi beharko da.

Ezinbestekoa da aukera bakoitzean dagokion *Hizkuntza-eredua* adieraztea.

Ikastetxe berean hainbat hizkuntza-eredu eskatzeko aukera dago (ikastetxeak eredu horiek eskaini ala ez); dena den, hizkuntza-ereduak lehentasunaren arabera ordenatu behar dira.

Eskaintzen ez diren ereduen aurretik * bat dago.

Zerrendako lehen zutabeak lehentasunen hurrenkera erakusten du; beraz, lehen lerroan ageri diren ikastetxea eta eredua izango dira lehentasunik handiena dutenak. Lehen postuan ageri den ikastetxearen ardura da eskaeraren datu nagusiak izapidetu eta egiaztatzea.

Azken zutabean, eskaera bakoitzaren egoera ageri da. Egoera hori "***Dokumentuen ekarpenen zain***" izan daiteke; hori agertuko da lehen postuan dagoen ikastetxeak eskaerari erantsitako nahitaezko dokumentuak egokitzat jotzen dituen arte. Gero, "***Osatuta***" esango du.

Eskaeren zerrendak aukera ematen du amaieran beste aukera bat gehitzeko ("***Berria***" botoia), baita edozein puntutan beste aukera bat gehitzeko (horretarako, hautatu aukera berria zein lerrotan gehitu nahi duzun eta sakatu "***Tartekatu***" botoia), aukeraren bat aldatzeko (horretarako, egin klik bi aldiz lerroan edo hautatu eta sakatu "***Aldatu***" botoia), aukeraren bat ezabatzeko (hautatu lerroa eta sakatu "***Ezabatu***" botoia) edota hurrenkera aldatzeko (hautatu mugitu nahi duzuna eta erabili eskuineko geziak) aukera ere.

10. ***Korrespondentzia hizkuntza:*** Ikaslearen eta tutore bakoitzaren datu pertsonaletan jakinarazpenak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzun adierazi behar da.




11. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari ***familia-kategoria maila*** kontsultatzeko baimena ematea.

Eskatzaileak honako lauki hau markatuko du, familia ugariaren mota Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko familia ugarien erregistroan kontsultatzea nahi badu, eta, hala, dagokion egiaztagiriak aurkeztu beharrik ez izatea:

Kontsulta telematikoa baimentzen dut familia ugarien zerbitzura dokumentazio egiaztatzailea erantsi behar ez izateko ☐

12. ***Bizikidetza-unitatearen erroldako datuak telematikoki kontsultatzeko baimena ematea***

Eskatzaileak laukitxo hau markatuko du, baldin eta bere familiaren helbidea kontsultatu nahi badu Bizikidetza Unitatearen Erroldako Elkarreragingarritasun Zerbitzuan, baimena duten EAEko udalerri guztietan, eta, horrela, ez du aurkeztu beharko dagokion egiaztagiririk.

.

Kontsulta telematikoa baimentzen dut erroldaren zerbitzura dokumentazio egiaztatzailea erantsi behar ez izateko ☐

Kontsulta egiteko, eman beharreko dokumentazioaren atalean dagoen "Erroldaren kontsulta" estekan klik egin behar da, dagokion dokumentuaren lerroan.

(*) Udalak luzatutako familia helbidearen errolda-egiaztagiria | Erroldako kontsulta | Erantsi | ☐

Bizikidetza-unitatearen errolda kontsultatuko da, eta informazioa pantaila honetan agertuko da:


Datuak: Prueba Infantil Ultima - 2022/09/18

Erroldaren zerbitzuaren helbidea
Helbidea:
CALLE EUSKALDUNA 003 1IZQ
P.K: 48003
Udalerria: BILBAO
Probintzia: VIZCAYA

Erroldatutako biztanleak

| Identifikazioa: | Izena: | 1. abizena: | 2. abizena: | Jaioteguna: |
|---|---|---|---|---|
| 00000000Z | NOMBRE | APELLIDO1 | APELLIDO 2 | 09/10/1979 |
| 11111111A | IZENA | ABIZENA1 | ABIZENA2 | 13/08/1984 |

Familia erroldaren ziurtagiria aurkezteko salbuespen baldintzak
Helbidearen eta biztanleen datuak zuzenak dira? Bai Ez

Zure eskaera osatu ahal izateko, zure udaletxean erroldaren ziurtagiria eskatzea eta zure eskaerari eranstea beharrezkoa da.

Ezeztatu

*Gogoratu Gorde botoia sakatu behar duzula aldaketak eragina izateko.

Honako kasuetan:

- Bizikidetza-unitatearen erroldako elkarreragingarritasun-zerbitzuak eskura dezakeen errolda-informazioa duen udalerri batean EAEn erroldatuta dauden pertsonak, eskatzailearen onarpen-eskabidean erabilitako nortasun-agiri berarekin (pasaportea, AIZ edo NAN) eta onarpen-eskaera egin duen adingabearekin bizi den pertsona salbuetsita geratuko da dagokion egiaztagiriak aurkeztetik.

- EAEtik kanpo edo Bizikidetza Unitatearen Erroldako Elkarreragingarritasun Zerbitzuan eskuragarri dagoen errolda-informaziorik ez duen udalerri batean erroldatuta dauden pertsonek, edo onarpen-eskaeran erabilitakoaz bestelako nortasun-agiri batekin erroldatuta daudenek, dagokion egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Edozein arrazoirengatik familia-erroldatzea Bizikidetza Unitatearen Erroldako Elkarreragingarritasun Zerbitzuaren bidez eskuragarria ez den pertsona orok dagokion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Udalak emandako ziurtagiria aurkeztu behar den kasuetan, eskaera ez da osatutzat joko dokumentu hori aurkeztu arte.

13. ***Derrigorrezko dokumentuak:*** hirugarren erlaitzean, eskaera izapidetu dezaten erantsi behar diren dokumentuak ageri dira.


Dokumentazioa

| Dokumentua | Fitxategia | Salbuetsia | Balioztatu |
|---|---|---|---|
| (*) Erregistro Zibiletko ikaslearen jaiotza-agiri indibidualaren fotokopia edo gurasoak edo tutoreak hartzen dituen beste dokumentu ofizial baliokide batetik egiaztagiria | Erantsi | ☐ | |
| (*) Ikaslearen Aita, Ama edo Lege-Tutorearen NANaren fotokopia (Atzerritarren kasuan AIZ) | Erantsi | ☐ | |
| (*) Udalak luzatutako familia helbidearen errolda-egiaztagiria Erroldako kontsulta | Erantsi | ☐ | |
| (*) Hezkuntza behar berezien galdesorta | Erantsi | ☐ | |
| Familia separatuen protokoloaren betetzearen egiaztagiria | Erantsi | ☐ | |

Honako dokumentu hauek nahitaez erantsi behar dira:

- Erregistro Zibiletko ikaslearen jaiotza-agiri indibidualaren fotokopia edo gurasoak edo tutoreak hartzen dituen beste dokumentu ofizial baliokide batetik egiaztagiria.
- Ikaslearen aita, ama edo lege-tutorearen NANaren fotokopia (atzerritarren kasuan, AIZ).

  Tutore eskatzailearen NAN edo AIZ agiriak nortasun-datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bidez egiaztapena gainditu badu, ez da beharrezkoa izango agiri hori eranstea.

**Dokumentazioa**

| Dokumentua | | Fitxategia | Salbuetsia | Balioztatu |
|---|---|---|---|---|
| (*) Erregistro Zibiletko ikaslearen jaiotza-agiri indibidualaren fotokopia edo gurasoak edo tutoreak hartzen dituen beste dokumentu ofizial baliokide batetik egiaztagiria | | Erantsi | ☐ | |
| (*) Ikaslearen Aita, Ama edo Lege-Tutorearen NANaren fotokopia (Atzerritarren kasuan AIZ) | | Erantsi | ☑ | |
| (*) Udalak luzatutako familia helbidearen errolda-egiaztagiria | Erroldako kontsulta | Erantsi | ☐ | |
| (*) Hezkuntza behar berezien galdesorta | | Erantsi | ☐ | |
| Familia separatuen protokoloaren betetzearen egiaztagiria | ? | Erantsi | ☐ | |

- Udalak luzatutako familia helbidearen errolda egiaztapena.

Horrez gain, zerrenda honetan ageri diren dokumentuak ere nahitaezkoak izan daitezke, eskaerak dituen datuen arabera:

- Ikaslearen edo bere lehen aita/ama/lege-tutorearen lantegiaren ziurtagiria.
- Bigarren aita/ama/lege-tutorearen lantegiaren ziurtagiria.
- Foru aldundietako ogasun departamentuetan errenta datuak egiaztatzeko baimena
- Familia harreran egotearen ziurtagiria.
- Hezkuntza Sailak ezarritako protokoloaren egiaztagiria (banandutako edo dibortziatutako familien kasuan): ezkontide ohiaren baimen-idazkia, ebazpen judiziala edo behin betiko neurria….
- Behar hezkuntza berezien galdesorta.
- Ikaslea errendimendu altuko kirol programa bat edo dantzako hezkuntza arautuko programa bat ikasten ari dela egiaztatzen duen dokumentua.
- Musika hezkuntza arautuko programa bat ikasten ari dela egiaztatzen duen dokumentua (EAEtik kanpo matrikulatutako ikasleentzat bakarrik).
- Ikasketen ziurtagiria.
- HPB baten aurretiko diagnostikoa
- Muturreko jaiotz-goiztiartasuna eta heldutasun-atzerapena egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria.
- Familiaren bizilekuaren ziurtagiria, Udalak emana. Dokumentu hori aurkeztu beharko da kontsulta egiteko baimenik ematen ez bada, edo EAEtik kanpo edo elkarreragingarritasun-sisteman sartuta ez dagoen udalerri batean (Basauri, Bermeo, Leioa, Ortuella, Mungia eta Usansolo) bizi bada.

Dokumentuak eransteko, “***Erantsi***” botoia sakatu behar da. Botoia sakatzean, artxiboak bilatzeko leiho bat irekiko da, eta, bertan, sistema lokaleko dokumentua hautatu beharko da. “***Gorde***” botoia sakatzean, dokumentua igo egingo da.

Dokumentu bat erantsi denean, “***Erantsi***” botoiaren ordez bi ikono agertuko dira; batek dokumentua kontsultatzeko aukera ematen du eta, besteak, berriz, dokumentua ezabatzekoa, gero beste bat igotzeko.


Ikaslearen Datuak | Eskatutako Ikasketak | Baremazioa / Dokumentazioa

Kontsulta telematikoa baimentzen dut erroldaren zerbitzura dokumentazio egiaztatzailea erantsi behar ez izateko
Kontsulta telematikoa baimentzen dut familia ugarien zerbitzura dokumentazio egiaztatzailea erantsi behar ez izateko

Dokumentazioa

| Dokumentua | Fitxategia | Salbuetsia | Balioztatu |
|---|---|---|---|
| (*) Erregistro Zibiletko ikaslearen jaiotza-agiri indibidualaren fotokopia edo gurasoak edo tutoreak hartzen dituen beste dokumentu ofizial baliokide batetik egiaztagiria | Erantsi | | |
| (*) Ikaslearen Aita, Ama edo Lege-Tutorearen NANaren fotokopia (Atzerritarren kasuan AIZ) | Erantsi | | |
| (*) Udalak luzatutako familia helbidearen errolda-egiaztagiria Erroldako kontsulta | Erantsi | | |
| (*) Hezkuntza behar berezien galdesorta | Erantsi | | |
| (*) Hezkuntza behar berezien diagnostikoa daukazulako ziurtagiria | Erantsi | | |
| (*) Familia separatuen protokoloaren betetzearen egiaztagiria | Erantsi | | |

14. ***Baremazio irizpideak:*** atal honetan, eskaera bati puntuak emateko kontuan hartzen diren irizpideak ageri dira (ikastetxearen eta etxebizitzaren edo lantegiaren arteko hurbiltasunaren irizpidea izan ezik; hori automatikoki kalkulatzen da, eskaeran adierazitako helbideak kontuan hartuta).

**Baremaziorako datuak**

| Baremazio irizpidea | Balorea | Dokumentua | Fitxategia | Salbuetsia | Balioztatu |
|---|---|---|---|---|---|
| **Baremazio irizpideak: OROKORRAK** | | | | | |
| Ikaslea minusbaliatua da | Bai ◉ Ez ○ | (*) Ikaslearen desgaitasunaren ziurtagiria | Erantsi | ☐ | |
| aita, ama, legezko tutorea edo neba-arrebetakoren bat minusbaliatua da | Bai ◉ Ez ○ | (*) Ikaslearen aita, ama, lege-tutorea edo anai-arrebaren desgaitasunaren ziurtagiria | Erantsi | ☐ | |
| Familia ugaria | Familia u | (*) Familia ugariaren kartillaren fotokopia | Erantsi | ☐ | |
| Familia-unitatearen urteko errenta baremazteko eskatzen dut eta datuak Hezkuntza Saila egiaztatzeko baimena ematen dut dagokion Foru-Ogasunean | Errenta-a | (*) Datuak egiaztatzeko baimenduak | | ☐ | |
| Eskatzailea ez den adin gabeko anai-arreba kopurua. | | | | | |
| Ikaslearen familia-harreraren egoera | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Lehen Aita/Ama/Lege-Tutorearen lantegiaren ziurtagiria | | | | | |
| Bigarren Aita/Ama/Lege-Tutorearen lantegiaren ziurtagiria | | | | | |
| Guraso bakarreko familia bateko ikasle adingabeak | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Genero-indarkeriaren biktima izatea | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Terrorismoaren biktima izatea | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Erditze anizkoitzaren ondorioz jaio zen eta erditze berean jaiotako ikaslearekin bizi den anai-arrebaren baten ikastetxe berean onartzeko eskatzen ari zara? | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Familia-unitatea lekualdatu da behartutako mugikortasunagatik, senitarteko baten azken urtean minusbaliatua gertatu delako edo genero indarkeria edo terrorismo ekintzetatik bizileku aldatu delako. | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| **Baremazio irizpideak: 014369 - CEIP URREGARAI HLHI (AULESTI)** | | | | | |
| Elkar bizi den anai-arrebaren batek ikastetxean edota atxikitako ikastetxe batean ikasten du | Bai ○ Ez ◉ | | | | |
| Elkar bizi den anai-arrebaren batek ikastetxe eta sarrera mailako kurtso berean eskaera egiten du | Bai ○ Ez ◉ | | | | |
| Aitak, amak edota legezko tutoreak ikastetxean egiten du lan | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Familia-unitateko kide bat eskatutako ikastetxeko kide kooperatibista da | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Eskola Kontseiluak emandako puntuazioa eskatzen duzu? | Bai ○ Ez ○ | | | | |

Eskabidea gorde ahal izateko, errentaren araberako baremazio-irizpidearen kasuan, nahitaezkoa da adieraztea baremazioa irizpide horren arabera puntuazioa eskatzen den ala ez. Horretarako, honako aukera hauetako bat hautatu ahal izango da:

1. Ez da eskatzen
2. Eskatzen da, EAEn egina
3. Eskatzen da, EAEtik kanpo egina.

Azken errenta aitorpena EAEn aurkeztu baduzu, ez duzu dokumentu hori eransteko aukerarik izango; izan ere, kasu horretan, Sailak zuzenean egiaztatuko du informazio hori Foru Ogasunekin. baina, nahitaez, familia-unitateko kide guztien baimena erantsi beharko duzu informazio hori kontrastatzeko.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Familia-unitatearen urteko errenta baremazteko eskatzen dut eta datuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egiaztatzeko baimena ematen dut dagokion Foru-Ogasunean | Sí se solici | (*) Datuak egiaztatzeko baimenduak | Erantsi |

ikonoa sakatuz gero, dagokion Foru Ogasunean datuak egiaztatzeko baimen-inprimakia lortuko duzu. Inprimaki hori sinatu ondoren erantsi beharko duzu.

Gainerako irizpideetarako ez da beharrezkoa ezer zehaztea.

Ezer adierazten ez bada, ulertuko da ez dela irizpide horri dagokion punturik eskatzen. Irizpideren batean balioren bat adieraziz gero eta horren baremoan puntuak jasotzea badakar, zerrenda berean, eskuineko aldean, irizpide hori justifikatzeko erantsi beharreko dokumentuaren deskribapena agertuko da, bai eta irizpidea betetzen dela egiaztatzen duen dokumentuaren artxiboa eransteko botoi bat ere.

Dokumentua nahitaezkoa bada, (*) agertuko da ondoan.

**Baremaziorako datuak**

| Baremazio irizpidea | Balorea | Dokumentua | Fitxategia | Salbuetsia | Balioztatu |
|---|---|---|---|---|---|
| **Baremazio irizpideak: OROKORRAK** | | | | | |
| Ikaslea minusbaliatua da | Bai ◉ Ez ○ | (*) Ikaslearen desgaitasunaren ziurtagiria | Erantsi | ☐ | |
| aita, ama, legezko tutorea edo neba-arrebetakoren bat minusbaliatua da | Bai ◉ Ez ○ | (*) Ikaslearen aita, ama, lege-tutorea edo anai-arrebaren desgaitasunaren ziurtagiria | Erantsi | ☐ | |
| Familia ugaria | Familia uç | (*) Familia ugariaren kartillaren fotokopia | Erantsi | ☐ | |
| Familia-unitatearen urteko errenta baremaren eskatzen dut eta datuak Hezkuntza Saila egiaztatzeko baimena ematen dut dagokion Foru-Ogasunean | Errenta-ai | (*) Datuak egiaztatzeko baimenduak | | ☐ | |
| Eskatzailea ez den adin gabeko anai-arreba kopurua. | | | | | |
| Ikaslearen familia-harreraren egoera | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Lehen Aita/Ama/Lege-Tutorearen lantegiaren ziurtagiria | | | | | |
| Bigarren Aita/Ama/Lege-Tutorearen lantegiaren ziurtagiria | | | | | |
| Guraso bakarreko familia bateko ikasle adingabeak | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Genero-indarkeriaren biktima izatea | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Terrorismoaren biktima izatea | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Erditze anizkoitzaren ondorioz jaio zen eta erditze berean jaiotako ikaslearekin bizi den anai-arrebaren baten ikastetxe berean onartzeko eskatzen ari zara? | Bai ○ Ez ○ | | | | |
| Familia-unitatea lekualdatu da behartutako mugikortasunagatik, senitarteko baten azken urtean minusbaliatua gertatu delako edo genero indarkeria edo terrorismo ekintzetatik bizileku aldatu delako. | Bai ○ Ez ○ | | | | |

Beste batzuetan, ez da nahitaezkoa dokumentua eranstea, ikastetxeak informazio hori egiaztatzeko beste bide batzuk dituelako.

| **Baremazio irizpideak: 014369 - CEIP URREGARAI HLHI (AULESTI)** | |
|---|---|
| Elkar bizi den anai-arrebaren batek ikastetxean edota atxikitako ikastetxe batean ikasten du | Bai ○ Ez ◉ |
| Elkar bizi den anai-arrebaren batek ikastetxe eta sarrera mailako kurtso berean eskaera egiten du | Bai ○ Ez ◉ |
| Aitak, amak edota legezko tutoreak ikastetxean egiten du lan | Bai ○ Ez ○ |
| Familia-unitateko kide bat eskatutako ikastetxeko kide kooperatibista da | Bai ○ Ez ○ |
| Eskola Kontseiluak emandako puntuazioa eskatzen duzu? | Bai ○ Ez ○ |

Hauek dira baremazio irizpideak:

- Baremazio irizpide **orokorrak** (atal honetan lortutako puntuak ikastetxe guztietan aplikatuko dira):
  - Urteko errenta.
  - Eskatzaileak dituen neba-arreba adingabeak.
  - Erditze anikoitzaren ondorioz jaiotako ikasle adingabeak.
  - Ikaslearen familia-harreraren egoera.
  - Ikaslea minusbaliatua izatea.
  - Aita, ama edo neba-arrebaren bat minusbaliatua izatea.
  - Familia ugaria.
  - Guraso bakarreko familiako ikasle adingabeak.
  - Genero-indarkeriaren biktima izatea.
  - Terroriskoaren biktima izatea.
  - Familia-unitatea lekuz aldatzea nahitaezko mugikortasunagatik, familiako edozein kideren azken urtean sortutako desgaitasunagatik edo genero-indarkeriaren edo terrorismoaren ondorioz bizilekua aldatzeagatik.
  - Erditze anizkoitzean jaio da, eta erditze berean jaiotako anai-arreben zentro berean onartzea eskatzen du.

- Ikastetxe bakoitzari dagozkion baremazio irizpide **espezifikoak** (ikastetxe bakoitzerako adierazi behar dira; izan ere, puntuazio horrek ikastetxe bakoitzari bakarrik eragiten dio):
  - Ikastetxearen eta etxebizitzaren edo lantegiaren arteko hurbiltasuna: puntuak ematen ditu, baina ez da eskaeran agertzen; izan ere, puntu horiek automatikoki kalkultzen dira, emandako helbideak oinarri hartuta.
  - Elkar bizi den neba-arrebaren batek ikastetxean edota atxikitako ikastetxe batean ikastea.
  - Elkarrekin bizi diren bi anai-arrebek ikastetxe berean eskatzen dute sarrera-maila.
  - Aitak, amak edota legezko tutoreak ikastetxean lan egitea.
  - Eskatutako ikastetxeko kide kooperatibista izatea.
  - Eskola kontseiluak libreki zehaztutako irizpideak.

  Eskaeraren baremazioan tutore baten edo bien lantokia hurbil dagoela kontuan hartzea nahi bada, lan-zuzendaritza hori (ek) egiaztatu beharko da, dagokion dokumentazioa erantsita.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ikaslearen familia-harreraren egoera | Bai ○ Ez ○ | | |
| Lehen Aita/Ama/Lege-Tutorearen lantegiaren ziurtagiria barematu | Lacorzanill | (*) Ikaslearen edo bere lehen Aita/Ama /Lege-Tutorearen lantegiaren ziurtagiria | Erantsi |

Irizpideren bat eskatzean harridurarik agertzen bada, esan nahi du sistemaren informazioa ez datorrela bat eskatutakoarekin. Eskaera ikastetxeak izapidetzen duenean desagertuko da deiadar hori.




***14.***. Inkesta: matrikulatuko den ikaslea eta/edo haren hezkuntzan erreferenteak diren pertsona helduei buruzko galdera sozioekonomikoak. Galdera guztiei erantzun behar zaie eskaera bidali ahal izateko .

## 2.2.3 Eskaera gordetzea / Ikastetxera bidaltzea / Eskaera berreskuratzea

Eskaera osatu, inkesta osoa beteta eta nahitaezko dokumentuak erantsi ondoren, baita baremazio irizpideak egiaztatzeko dokumentuak erantsi ondoren ere, sakatu "***Bidali***" botoia, eskaera adierazi duzun lehen ikastetxera bidaltzeko.




Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra egin dezake, aplikazioaren bidez edo ikastetxean bertan.

Sisteman eskaera bat babadago, ikasle horrentzat, ezingo duzu eskabidea bidali.

Ekintza horren bidez, ikastetxeak eskaera eskuratu ahal izango du, kudeatzeko.

Gerora eskaera aldatu nahi izanez gero, sakatu "***Bidalketa desegin***" botoia; eskaera bidalita dagoenean agertzen den pantailaren beheko aldean dago.




"***Bidalketa desegin***" botoia ikusgarri egongo da ikastetxeak eskaera egiaztatzen duen arte. Ikastetxeak egiaztatzen duenean, ezin izango duzu online aldatu. Aldatzeko, lehen eskaeran adierazitako ikastetxera joan beharko zara, Administrazioak adierazitako epea agortu baino lehen.

Dokumenturen bat okerra bada edo zuzendu egin behar bada, mezu elektroniko bat jasoko duzu.

"*Oharrak*" atalean agertuko da dokumentua ez onartzeko arrazoia.

**Aurreko dokumentua ordeztuko duena** eransteko, lehenik eta behin zegoena ezabatu behar duzu. Horretarako, sakatu "*Ezabatu*" ikonoa dagokion zutabean. Ondoren, erantsi fitxategi egokia lehenago azaldutako eran.

Eskaera bat onarpen prozesuan sartzeko, ezinbestekoa da nahitaezko dokumentu guztiak zuzen egotea.

## 2.2.4 Aurkeztutako dokumentuak zuzentzea

Ikastetxeak uste badu eskaerari atxikitako dokumenturen bat okerra dela, mezu elektroniko bat jasoko duzu, horren berri emanez. Kasu horretan, zure eskaerara sartzean, dokumentu akastunean ikono gorri bat agertuko da. Ikonoan klik eginez gero, ikastetxeak idatzitako oharrak ikusi ahalko dituzu.

Onartutako dokumentuek ikono berdea izango dute.




## 2.2.5 Zirriborroa/Eskaeraren ziurtagiria inprimatzea

"***Inprimatu***" aukera sakatuz gero, pdf dokumentu bat eskuratuko duzu, eskaeran adierazitako datuekin.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

| AURREINSKRIPZIOA EGITEKO ESKABIDE ORRIA/ HOJA DE PREINSCRIPCIÓN | |
|---|---|
| Haur Hezkuntza / Educación Infantil | nnnn - nnnn +1 Ikasturtea/ Curso nnnn - nnnn +1 |

| Ikaslearen datuak / Datos del alumno/a | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| NAN(AIZ) / DNI(NIE) | Izena / Nombre<br>Prueba | 1.abizena / 1er apellido<br>Infantil | 2.abizena / 2º apellido<br>Ultima | HNA / DIE<br>2128204I | |
| Harr.Telefonoak / Tlfnos.Contacto<br>626939551 | Sexua / Sexo<br>Emakumea / Mujer | Nazionalitatea / Nacionalidad<br>espainiarra / española | Jaioteguna / Fecha de nacimiento<br>2022/09/18 / 18/09/2022 | | |
| Jaioterria / Pais de nacimiento<br>España | Jaiotze-lurraldea(Probintzia) / Territorio (Provincia) de nacimiento<br>Araba/Álava | Jaiotze-udalerria / Municipio de nacimiento<br>Alegría-Dulantzi | | | |
| Helbidea / Dirección<br>Salvatierra (EN) 0 A | P.K./ C.P.<br>01200 | Udalerria / Municipio<br>Agurain/Salvatierra | HPB / NEE<br>Bai / Sí | HPB-ren diagnostikoa / Diagnóstico NEE<br>Bai / Sí | |

***Ikastetxeak nahitaezko dokumentuak egiaztatu eta zuzentzat jo dituenean,*** eskaeraren ziurtagiria eskuratu ahalko duzu. Bitartean, sistemak zirriborro bat eskainiko dizu, pdf formatuan (ur-marka batekin); horrek ez du inolako lege baliorik.

Dokumentua bistaratzeko, beharrezkoa da Acrobat Reader izatea (helbide honetan deskarga dezakezu: http://get.adobe.com/es/reader/ ).

## 2.2.6 Eskaeraren egoera kontsultatzea

*Eskaerak* zerrendan eta eskaeran bertan kontsulta dezakezu egoera.







Hauek dira online izapidetutako eskaerek izan ditzaketen egoerak:

1. **Ikastetxera bidaltzea falta da:** eskaerako edozein datu alda daiteke.
2. **Igorrita:** eskaera ikastetxera bidali da.
3. **Aztertzen:** ikastetxea eskaera kudeatzen hasi da. Une honetan, ezin da online aldatu. Aldatzeko, lehen aukera gisa jarritako ikastetxera bertaratu behar duzu.
4. **Dokumentazioa falta da:** oraindik ez da dokumentazioa erantsi edo, bidali ondoren, ikastetxeak eskaera berrikusi du eta erantsi dituzun nahitaezko dokumentuak zuzendu egin behar dira.
5. **Osatuta:** ikastetxeak eskaera berrikusi du eta erantsitako dokumentazio osoa zuzena da.
6. **Osoa, baina ikastetxeak baremazio dokumentazioa egiaztatu behar du:** ikastetxeak eskaera egiaztatu du eta nahitaezko dokumentazioa zuzena da, baina oraindik ez ditu onartu baremazio irizpideak egiaztatzeko dokumentuak.
7. **Osoa, baina baremazio dokumentazioa zuzendu behar da:** ikastetxeak eskaera berrikusi du eta nahitaezko dokumentazio guztia zuzena da; hala ere, baremazio irizpideak egiaztatzeko dokumenturen bat zuzendu behar da.

## 2.3 Eskabidea ezabatzea / Prozesuan atzera egitea

Eskatzaileak bere eskaera ezabatu ahal izango du, "Ezabatu" botoia sakatuz.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 07/01/2021 | Ane Primaria Prueba | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | CPEIPS Alazne HLBHIP | Bidaltzeke | Ezabatu |

Eskaera ikastetxera bidali bada, prozesuan atzera egin ahal izango du, eskabidearekin batera agertzen den “Uko egin” botoia sakatuz.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 30/12/2020 | Ane Primaria Prueba | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | CPEIPS Alazne HLBHIP | Aztertzen | Uko Egin |

# 3 Esker onak

Mila esker emandako arretagatik; espero dugu dokumentu hau erabilgarria izango zitzaizula onarpen eskaera Internet bidez egiteko.

Eskerrik asko.